

**i-gipuzkoa2010** | 

# **GIPUZKOA INFORMAZIOAREN GIZARTEAN**

## **GIPUZKOAKO HERRITARREN BIZIMODU DIGITALA 2009**

**GIPUZKOA**  
berrikuntza lurraldea  
territorio de innovación  
[www.i-gipuzkoa.net](http://www.i-gipuzkoa.net)



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa  
Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Departamentua  
Departamento de Innovación y Sociedad del Conocimiento



Sormena  
eta Berrikuntza  
2009 Europar Urtea



## AURKIBIDEA

---

<b>a.</b> Aurkezpena .....	2
<b>b.</b> Nolakoa da Gipuzkoako herritar digitala? .....	5
<b>c.</b> Nola nabigatzen dugu? .....	12
<b>d.</b> Zein dira gure e-gaitasunak? .....	19
<b>e.</b> Zertarako erabiltzen dugu Internet? .....	26
<b>f.</b> Zenbat eragiten du Internetek gure bizitzan? .....	32



## TAULEN AURKIBIDEA

---

d.1 taula	Gaitasunak Interneten.....	19
d.2 taula	web 2.0 aplikazioak.....	21
e.1 taula	Gehien bisitatzen diren webguneetako gaiak.....	26
e.2 taula	Gehien bisitatzen diren jatorri gipuzkoarreko webguneetako gaiak.....	27
f.1 taula	Internetekiko jarrera pertsonala, adin-taldean arabera.....	33
f.2 taula	Internetekiko jarrera pertsonala, lan-egoeraren arabera.....	33
f.3 taula	Eguneroko jardueretan Internetek duen eragina, adin-taldean arabera.....	34
f.4 taula	Eguneroko jardueretan Internetek duen eragina, lan-egoeraren arabera.....	35



## GRAFIKOEN AURKIBIDEA

---

c.1 grafikoa	Interneten disponibilitatea eta konexio mota etxebizitzan.....	12
c.2 grafikoa	Sarbideko gailu mugigarriak.....	14
c.3 grafikoa	Nabigatzeko lehenetsitako hizkuntza.....	16
d.1 grafikoa	Komunitate birtualetako partaidetza-maiztasuna.....	22
d.2 grafikoa	Komunitate birtualetako gaiak.....	23
d.3 grafikoa	Internet bidezko prestakuntza.....	23
e.1 grafikoa	Udal administrazioa on-line: gehien eskatzen diren zerbitzuak.....	29
e.2 grafikoa	Udal e-administrazioko edukien eta zerbitzuen balioespena.....	30
f.1 grafikoa	Teknologia berriekiko jarrera pertsonala.....	32
f.2 grafikoa	Internetek eguneroko jardueretan duen eragina.....	34



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa  
Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarte Departamentua  
Departamento de Innovación y Sociedad del Conocimiento

i-gipuzkoa2010 

a



Aurkezpena





# a.

## Aurkezpena

“**Gipuzkoako herritarren bizimodu digitala 2009**” urteko txosten honen helburua Gipuzkoako Interneteko erabiltzaileen artean jarrerak, jokabideak, ohiturak eta Interneten eragina aztertzea da.

Txostena osatzen duten bost kapituluetan, Gipuzkoako herritarren bizimodu digitalaren ezaugarri nagusiak azalduko ditugu.

Txostena bost atal nagusitan dago egituratuta: **Nolakoa da Gipuzkoako herritar digitala?** izeneko lehen atalean, dokumentuan oro har, landutako gai eta arlo nagusien ikuspegi orokorra aurkeztuko dugu.

**Nola nabigatzen dugu?** izeneko bigarren atalean, gipuzkoarrek Internetez egiten duten erabilera eta haren disponibilitatea aztertuko dugu, baita konexioen kalitatea, sarbide mugigarrien gailu berriak, software librea, erabilitako hizkuntza eta segurtasuna internauta gazteenek nabigatzean ere.

**Zein dira gure e-gaitasunak?** izeneko atalean, biztanle internauten gaitasun teknologikoak eta onlineko trebakuntzarako sarbidearen ezaugarriak aztertuko ditugu.

Nabigazioaren arrazoiak landuko ditugu laugarren kapituluaren, Gipuzkoako internautek gehien bisitatutako onlineko zerbitzu eta webguneen sailkapenarekin batera. Laugarren kapitulu horren izenburua **Zertarako erabiltzen dugu Internet?** da. Atal hau berrikuntza da aurreko txostenei dagokienez, eta gainera, beste arlo espezifiko bat ere sartu dugu, web 2.0 eta Sarean udal-administrazioak duen presentziari buruz.

Azkenik, **Zenbat eragiten du Internetek gure bizitzan?** izeneko bosgarren atalean, Gipuzkoako internautek Internetetik duten jarrera aztertuko dugu, eta horrek haien eguneroko jardueretan eta harreman pertsonaletan duen eragina; horrez gain, arreta berezia eskainiko diogu web 2.0ren eraginari eta Internet ulertzeko filosofia berri horren baitan agertu diren tresna berriei.

2007an hasitako segidan hirugarrena den urteko txosten hau egiteko, Gipuzkoan bizi diren, 15 urte edo gehiago duten eta azken astean gutxienez



behin Interneten sartu diren 731 laguni inkesta egin diegu. Horretarako guztira 1.568 inkesta egin direlarik.

Nabaria da Interneten erabilera-maila eta herritarren aldetik erabilera horren helburua azken urteetan bilakatu egin dela. Izan ere, zerbitzu berriak agertu dira, teknologia eta tresna berriak, eta Internet bera ere zabaldu egin da.

Aurrerapen horrekin modu paraleloan, internauten edo Interneteko erabiltzaileen kalifikazioak ere bilakaera izan du. Izan ere, lehen, internauta edo erabiltzailea deitzen zitzaion noizean behin edo ohikotasunez (gutxienez azken hiru hilabeteetan behin) sartzen zenari. Orain, berriz, ohikotasunez sartzen denari deitzen zaio (astean behin, edota egunero).

Pertsonen talde hori aztertuko dugu txosten honetan, eta horri deituko diogu Gipuzkoako herritar digitala, internauta edota Interneten erabiltzailea.



b



## Nolako da Gipuzkoako herritar digitala?





# b.

## Nolako da Gipuzkoako herritar digitala?

### ***NOLA NABIGATZEN DUGU?***

#### **Gipuzkoako herritarren erdiak Internet erabiltzen du eta abiadura handian sartzen da**

Gipuzkoako hamar herritarretatik seik Interneterako konexioa du etxean, eta haietatik % 90ek, konexioak abiadura handiaren bidez egiten ditu, banda zabalaren bidez (ADSL edo kablea).

15 urte eta gehiagoko biztanleen % 50ek diote Interneten ohiko erabiltzaile direla, hau da, gutxienez astero sartzen dira Internetera.

Biztanleriaren adina murrizten den heinean, Interneten sartzeko tasa handiago egiten da: 15 eta 24 urte arteko adin-tartean ia guztiak sartzen dira.

#### **Gailu mugigarriak gero eta gehiago erabiltzen dira nabigatzeko**

Gipuzkoako herritar digitalen erdiak adierazi du Internetera sartu edo posta elektronikoa sarbide mugigarritik kontsultatzen duela, ordenagailu eramangarritik, kable gabeko konexioaren baten bidez edo beste gailu mugigarri batzuen bidez.

Horien artean, nabarmentzekoak dira telefono mugigarriak eta PDAk eta beste terminal eramangarri batzuk.



## **Interneten erabiltzaile diren sei pertsonatetik batek software librea erabiltzen du**

Software librea, enpresa pribatuen softwarea erostearen alternatiba interesgarri gisa, internauten % 17k erabiltzen dute.

Aplikazioen artean, Interneteko nabigatzaileak nabarmentzen dira (bost lagunetatik lauk software librea erabiltzen dute) eta, neurri txikiagoan, birusen aurkako programa libreak eta tresna ofimatikoak (erabiltzaileen erdiak).

Sistema eragile libreak ez dira hainbeste erabiltzen (erabiltzaileen herenak).

## **Gurasoen kontrolerako sistema informatikoak gero eta ohikoagoak dira**

Internetek informazioa, ezagutza, komunikazioa eta aisialdia eskaintzeko bitarteko gisa eskaintzen dituen onurak ukaezinak diren neurrian, ezagutu eta prebenitu behar diren hainbat arlo ere badaude, eta bereziki, arlo horiek adin txikieneko herritarrei eragiten badie.

Hori dela eta, guraso internauten % 73k inguruk seme-alabek Interneten egiten dituzten jarduerak ohikotasunez jarraitzen dituzte.

Ehuneko hori % 24ra arte jaisten da gurasoen kontrolerako programa edo sistema informatikoren bat aktibatuta dagoenean, bai adin txikikoa zer edukitara sartzen den kontrolatzeko, bai eskaintako nabigazio-denbora kontrolatzeko.

## ***ZEIN DIRA GURE e-GAITASUNAK?***

### **Herritarren gaitasun teknologikoak hobetu egin dira**

Gipuzkoako internauten artean, ia denek dute gaitasuna Interneteko oinarriko jarduerak egiteko, esaterako informazioa bilatzeko bilatzaileen bidez edo erantsitako fitxategiak dituzten posta elektronikoak bidaltzeko.

Hala ere, txatetan, foroetan eta blogetan parte hartzea, esaterako, edo filmak, musika edo beste fitxategi batzuk deskargatzeko truke-plataformak erabiltzea ere internauten artean zabaldua dauden gaitasunak dira; izan ere, internauten % 70ek inguruk adierazi dute gai direla horiek egiteko.



Beste jarduera konplexuago batzuk, webgune espezifikoetan edukiak igotzea edo zintzilikatzea (bideoak, aurkezpenak, argazkiak, ezagutza eta abar) fitxategiak partekatzeko, edota Internet bidez telefono-deiak egitea, edo webguneak sortzea bera internauten artean ez dira gaitasun hain ohikoak.

Internet erabiltzeko norberaren gaitasunetan trebakuntza izateaz gain, Gipuzkoako herritarren % 40k adierazi du azken hiru hilabeteetan Internet trebakuntzako edo ikaskuntzako helburuarekin erabili duela.

### ***YouTube*, gehien bisitatutako 2.0 plataforma**

Herritar digitalen % 16k nahiko sarri parte hartzen du komunitate birtual, sare sozial, web, foro edo blogen batean.

Zehatzago, gehien bisitatutako 2.0 aplikazio espezifikoenei dagokienez, gehienek (% 84) adierazi dute azken hilabeteetan *YouTube* erabili dutela Internet bidez bideoak partekatzeko web plataforma.

*Facebook* ere (lagunak, familia artekoak eta inguruneko beste lagun batzuk harremanetan jartzen dituen sare soziala) internauten % 41ek aukeratu dute.

*Tuenti*, *Facebook*en antzekoa, baina jatorri espainiarrekoa eta nerabeei zuzendutakoa, sare sozialak erabili ohi dituzten internauten % 38k erabiltzen dute.

*Myspace*, aurreko bien antzeko sare soziala, baina musika-gaietan espezializatutakoa, 2.0 webguneen erabiltzaileen % 22k erabiltzen dute.

Eta *Flickr*, sare sozialen beste adibide argi bat, kasu honetan argazkiak eta irudiak partekatzeko, herritarren % 15ek aipatu dute.



## ***ZERTARAKO ERABILTZEN DUGU INTERNET?***

### **Komunikabideak dira Gipuzkoako internautek gehien bisitatzen dituzten webguneak**

Internauten laurdenak adierazi du, oro har, komunikabideen webguneak erabiltzen dituela gehien.

Neurri txikiagoan, Interneteko informazio-bilatzaileak, kultura-gaietako webguneak, sare sozialak, kirolekoak eta bidaietakoak ere aipatu dituzte.

### **Gipuzkoako erakundeen webguneen artean, onlineko bankuak nabarmentzen dira**

Gipuzkoako erakundeen webguneen balorazioari dagokionez, erabiltzaileen bizi-kalitatea hobetzeko ematen duten laguntzari dagokionez, onlineko banku-zerbitzuen aldeko balorazioa nabarmentzen da.

Jarraian, distantzia handi samarrera bada ere, komunikabideen ingurukoak daude, baita administrazio publikokoak ere.

### **Gipuzkoako udalen onlineko zerbitzuen balorazioa, aldekoa**

Gipuzkoako herritar digitalen artean dagokien udalaren webgunea oraindik ere gutxi ezagutzen duten arren (erabiltzaileen artean, hamarretik seik ezagutzen dute), erabilera-maiztasuna are murriztagoa da; eskainitako edukien eta zerbitzuen balorazioa aldekoa da.

Erabiltzaileen artean, bost lagunetik lauk eskaintza erabilgarritzat edo oso erabilgarritzat hartzen dute, eta onlineko zerbitzu erabilienak udalerrinari buruzko informazio orokorra eta inprimakiak eta formularioak online eskatzea izan ohi dira.

Erabilera murriztagoa dute udaleko beste zerbitzu batzuetara sartzeko, esaterako, hauek: udalbatzaren informazioa, aldez aurretiko hitzorduak eskatzea, ordainagiriak eta isunak ordaintzea, eta ikastaro eta jardunaldietan izena ematea.



## **ZENBAT ERAGITEN DU INTERNETEK GURE BIZITZETAN?**

### **Herritar digitalen erdiak dio Internet oinarrizkoa edo garrantzitsua dela eguneroko bizitzari lotutako jarduerak egiteko**

Herritar digitalen erdiak uste du Internet eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak oinarrizkoak edo oso garrantzitsuak direla beren bizitzarako, eta lanerako, erabilera pertsonalerako edo harremanetarako.

Eta gutxi gorabehera Gipuzkoako hamar internautatik lauk uste dute erabilgarriak direla, eta ondorioz, erabiltzen ditu, teknologia horiekiko jarrera edo jokabide neurritzkoa mantenduz.

Herritar gazteenek (15 eta 34 urte artekoak), tresna horien erabileran ohituago egonik, jarrera biziagoa agertu dute tresna horiek beren bizitzan duten eraginari dagokionez.

Gainera, hiru internautetatik batek Internetek bizitzan eragin nabaria duela adierazi du, eta zaila egingo litzaiokeela, ia ezinezkoa, hura gabe zailtasunik gabe bizitzea.

Eta, gainera, herritar digitalen erdiak baino gehiagok onartzen du Internet ez izateak bizitzaren arloren bat aldatzea ekarriko lukeela. Hamar internautatik bakarrik adierazi du Internet gabe berdin-berdin biziko litzatekeela.

### **Web 2.0: lagunekin harremanetan egoteko eta zaletasunak partekatzeko tresna egokia**

Gipuzkoako internauten % 65ek adierazi dute 2.0 aplikazioei esker, lagunekin harreman jarraituagoa mantendu ahal izan dutela.

Gainera, % 45ek zaletasunak partekatzen dituzten beste pertsona batzuk ezagutu dituzte eta % 31k adierazi dute Interneten bidez lagunak sarea handiagotu egin dutela.

2.0 webguneen eragina gazteen artean gehiago ikus daiteke, horiek baitira tresna mota horien erabiltzaile nagusiak (lautik bat, 25 urte baino gutxiagoko gipuzkoarren artean).



Hori dela eta, lagunekin, familiakoekin eta inguruneko beste pertsona batzuekin harremanetan modu jarraituagoan egoteko edo haien zaletasunez informazioa jasotzeko 2.0 tresnak (sare sozialak edo komunitate birtualak, esaterako) erabiltzen dituzten gazteen ehuneko altua nabarmentzen da.



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa  
Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarte Departamentua  
Departamento de Innovación y Sociedad del Conocimiento

i-gipuzkoa2010 

C



Nola nabigatzen dugu?





# C.

## Nola nabigatzen dugu?

### Interneteko konexioaren disonibilitatea eta kalitatea etxean

Eustatek argitaratutako datuen arabera, 2008ko azken hiruhilekoan, Gipuzkoako herritarren % 60k Interneteko sarbidea du etxean.


Interneteko konexioen kalitateari dagokionez, konexioen % 90 inguru banda zabalaren (ADSL edo kablea) bidez egiten dira; gero eta gutxiagok erabiltzen dute oinarriko telefono-linea (RTB) edo beste teknologia batzuk.

Hala eta guztiz ere, nabarmentzekoa da hainbat internautak kontratatutako konexioaren abiadurari buruz duen ezagutza eskasa. Zehazki, etxebizitzan banda zabaleko konexioa duten hamar internautatik hiruk esan dute ez dakitela zer deskarga-abiadura duten kontratatuta.

Konexioen abiadurari dagokionez, etxebizitzan banda zabaleko sarbidea duten internauten % 56k adierazi dute 3 Mb baino gehiagoko deskarga-abiadura dutela kontratatuta; bien bitartean, % 14k gehieneko abiadura 3 Mb baino baxuagokoa du.

### c.1 grafikoa\_\_ Interneten disonibilitatea eta konexio mota etxebizitzan

[15 urte eta gehiagoko biztanleen %]





Etxean banda zabaleko sarbiderik ez duten internauten azterketan oinarrituta, gehienek, arrazoi nagusien artean, beste lekuetatik Interneten sartzeko aukera (lanpostua, ikastetxea, ziber-kafea eta abar) edo beste konexio mota baten disponibilitatea aipatzen dute.

Neurri txikiagoan, zenbait internautak kostua (eta ez eremuko sarbidearen disponibilitatea) aipatzen dute etxean banda zabalaren disponibilitaterik ez izatearen arrazoi nagusien artean.

### **Internet erabiltzen duten herritarrak**

Hala eta guztiz ere, etxeetan sartzeko disponibilitate-maila edozein izanda ere, 15 urte eta gehiagoko herritarren % 50ek Interneteko ohiko erabiltzailetzat du bere burua; hau da, gutxienez, astean behingo maiztasunarekin sartzen da Sarean eta oso herritar gutxi sartzen da maiztasun txikiagoarekin.

llo horretatik, nabarmendu beharrekoa da Interneten maiztasun txikiagoarekin sartzen den internauta-taldearen artean, adinez nagusiagoak diren herritarrak nagusitzen direla batik bat. 45 urte baino gehiagoko biztanleria, hezkuntza-maila txikiagokoa eta lan-merkatuan jarduera-tasa baxuagoa duena.

Beraz, argi eta garbi ondoriozta dezakegu beste edozein faktoreren gainetik, adina dela Interneten erabilerarekin lotutako faktore nagusia. Hain zuzen ere, aztertutako herritarren adinak beherantz egiten duen heinean, Interneten sartzeko tasak gora egiten du, eta Gipuzkoaren kasuan, 16 eta 24 urte arteko adin-tartean, tasa hori ia guztizkora iristen da.



## Sarbideko gailu mugigarriak

Orain arte, mahai gaineko ordenagailua izan da Interneten sartzeko ekipamendu nagusia, baina aurrerapen teknologikoei eta telekomunikazio-aurrerapenei esker, gailu berri eta desberdinetatik sar gaitzke Sarean.


lido honetatik, gaur egun, Interneteko sarbidea duten edo posta elektronikoa kontsultatzen duten 10 internautatik 5ek sarbide mugigarri bidez egiten dute; hau da, ordenagailu eramangarriaren eta kablerik gabeko konexio bidez (Wi-fi, Interneteko txartel mugigarria).

Interneten sartzeko beste gailu mugigarri batzuk, hau da, telefono mugigarriak, PDAk edo "eskuko" terminal mugigarriak gero eta garrantzitsuagoak dira Gipuzkoako internauten artean.

Zehazki, Interneten nahiko sarri sartzen den Gipuzkoako herritarren % 9 telefono mugigarriaren bidez sartzen da, eta % 4k gailu eramangarriak erabiltzen ditu horretarako, hau da, PDAk eta antzeko terminalak.

### c.2 grafikoa\_\_ Sarbideko gailu mugigarriak

(Internet erabiltzen duten herritarren %)



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia Gipuzkoako herritarren Bizimodu Digitala.



## Software Librea

Ordenagailua eta Internet erabiltzeko orduan enpresa pribatuen softwarea erostearen alternatiba interesgarria da software librea.

Software librea terminoak baimen libreekin banatutako software-produktu oro biltzen du. Baimen-tipologia horren bidez, erabiltzaileak aipatutako softwarea edozein helbururekin erabil dezake; bai pribatua, hezkuntzako, publikoa, komertziala eta abar; gainera, softwarea bera aldatzea, kopiatzea eta hobetzea ahalbidetzen du.

Software mota honek abantaila nabariak dituen arren, oraindik ere, herritarren artean txertaketa-maila murrizta du; hala ere, gero eta praktika ohikoagoa da. Gipuzkoaren kasu zehatzean, internauten % 17k adierazi du software libreko aplikazioen bat erabiltzen duela.

Gipuzkoan software libreko programak erabiltzen dituzten internauten kasuan, Interneteko nabigatzaileak nabarmentzen dira gehien erabilitako aplikazioen eta baimen mota hauen mende daudenen artean.


Software librea erabiltzen duten (% 81) Gipuzkoako internauten ordenagailuetan gero eta gehiago erabiltzen diren software libreko nabigatzaileen adibideak dira *Firefox*, *Opera*, *Safari* edo *Chrome* tresnak.

Birusen kontrako programa libreen, ofimatikako tresnen edo sistema eragile libreen erabilera zertxobait murriztagoa da.

Software librea erabiltzen duten Gipuzkoako internauten % 49k birusen kontrako libreak erabiltzen ditu: *Avast!*, *Antivir* edo *ClamWin*, ofimatikako tresna libreak erabiltzen dituzten internauten ehunekoa ere antzekoa da, hau da, *OpenOffice* edo *StarOffice* paketeak, beste batzuen artean. Bestalde, software librea erabiltzen duen internauta-taldearen % 34k sistema eragile libreak erabiltzen ditu, *Linux* esaterako.

### c.5 grafikoa\_\_ Erabiltzen diren software libreko aplikazioak

[Software librearen erabiltzaileak diren herritarren %]



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia Gipuzkoako herritarren Bizimodu Digitala.



## Nabigazio-hizkuntza


Nabigatzeko garaian internautek aukeratutako hizkuntzaren gainean, azken azterketen arabera, gehienek gaztelania erabiltzen dute (% 91).

Internauta-taldean % 7k aukeratzen dute euskara lehenetsitako hizkuntza gisa; hala ere, herritar askok aukeratzen dute euskara modu partekatuan, batez ere, adinez gazteenak direnek.

Hori dela eta, nabarmendu beharrekoa da 35 urtez behekoen taldean, euskara lehenesten dutenen kopuruak gora egin duela; hamar gaztetik ia batek erabiltzen du euskara Interneten sartzeko orduan hizkuntza nagusi gisa.

### c.3 grafikoa\_\_ Nabigatzeko lehenetsitako hizkuntza

(Internet erabiltzen duten herritarren %)



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia Gipuzkoako herritarren Bizimodu Digitala.



## Segurtasuna gazteenen nabigazioan

Internetek informazioa, ezagutza, komunikazioa eta aisialdia eskaintzeko bitarteko gisa dituen onurak ukaezinak diren neurrian, ezagutu eta prebenitu behar diren hainbat arlo ere badaude, eta bereziki, arlo horiek adin txikieneko erabiltzaileei, hau da, 6 eta 18 urte artekoak, eragiten badie.

llo horretatik, badago kezka orokor bat; izan ere, Internetek adingabekoei erraztasun osoak ematen dizkie beren adinerako egokiak ez diren eta zenbaitetan legez kontrakoak diren edukietara sartzeko.

Arazo horri aurre egiteko, batez ere bi irtenbide daude: Gurasoek edo adingabekoen tutore nahiz arduradunek haurrek Interneten garatzen dituzten jarduerari buruzko aldizkako jarraipena "in situ" egitea, edo haurrek gurasoek kontrolatutako informatikako tresnak edo programak erabiltzea.


Informatikako programa horiei esker, adingabekoak ordenagailuan eta Interneten egindako ekintzak kontrolatu eta monitoriza daitezke; horretarako, denbora eta edukiak kontrolatzeko sistemak txertatu eta exekutagarriak ez diren programak zehaztu behar dira.

Seme-alaba adingabeak dituzten internautei egindako inkestaren emaitzen arabera, Gipuzkoako gurasoen % 73k seme-alabek Sarean egiten dituzten jardueren ohiko jarraipena egiten du.

Ehuneko hori % 24ra arte jaisten da gurasoen kontrolerako programa edo sistema informatikoren bat aktibatuta dutenen kasuan, bai adin txikiak zer edukitara sartzeko, bai eskaintako nabigazio-denbora kontrolatzeko.

### c.8 \_\_\_\_\_ Segurtasuna: Gurasoen kontrolerako sistemak

(Internet erabiltzen duten eta haur adingabeak dituzten herritarren %)





d

Zein dira gure *e-gaitasunak*?



# d.

## Zein dira gure *e-gaitasunak*?

### e-gaitasunak (*e-skills*)

Internet erabiltzeak Sareak eskaintzen dituen tresna eta aukerak erabiltzeko gaitasun eta ezagutza berri gehiago eskuratzeko aukera ematen du.

Illo horretatik, Internet erabiltzen duten gipuzkoarren artean, ia denek dute gaitasuna Interneteko oinarrizko jarduerak egiteko, esaterako, bilatzaileen bidez informazioa bilatzeko [% 99] edo erantsitako fitxategiak dituzten posta elektronikoa bidaltzeko [% 91].

Hala ere, txatetan, foroetan eta blogetan parte hartzea, esaterako, edo filmak, musika edo beste fitxategi batzuk deskargatzeko truke-plataformak erabiltzea internauten artean hain zabaldua ez dauden gaitasunak diren arren, horiek gauzatzen dituzten pertsonen kopurua areagotuz doa.

Beste jarduera konplexuago batzuk, webgune espezifikoetan edukiak igotzea edo zintzilikatzea (bideoak, aurkezpenak, argazkiak, ezagutza eta abar) fitxategiak partekatzeko (argazkiak *Flickr*en, bideoak *YouTube*n, ezagutza *Wikipedian* eta abar), edota Internet bidez telefono-deiak edo bideokonferentziak egitea (*Skype*...), edo webguneak sortzea bera Gipuzkoako internauten artean ez dira hain gaitasun ohikoak.

### d.1 taula \_\_\_\_ Gaitasunak Interneten

(Internet erabiltzen duten herritarren %)

	Guztira	15 eta 24 urte artean	25 eta 34 urte artean	35 eta 44 urte artean	45 eta 54 urte artean	55-64 urte	65 urte eta gehiago
Bilatzaileen bidez Interneten informazioa bilatzea	99	99	100	99	99	98	96
e-mailak atxikitako artxiboekin bidaltzea	91	95	95	93	83	82	87
Txatean, foroan, blogean edo antzekoetara mezuak bidaltzea	74	93	85	68	58	47	48
Internet erabiltzea telefono-deiak eta bideokonferentziak egiteko	38	49	50	29	28	31	26
Trukaketa-plataformak erabiltzea filmak, musika, artxiboak... jaisteko	71	93	86	62	53	49	35
Nork bere edo besteen edukiak sarera igotzea elkarbanatu ahal izateko	51	71	64	38	39	34	29
Nork bere web orria sortzea	20	34	20	13	19	13	13

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia Gipuzkoako herritarren Bizimodu Digitala.



Jasotako emaitzetan ikusten den moduan, erabilera-maiztasunarekin batera, adina gaitasun eta trebetasun teknologikoen garapen handiagoa edo urriagoa azaltzen duen aldagai nagusietako bat da. Herritar digital gazteena da gaitasun teknologiko gehien azaltzen dituen.

Hori horrela, gaitasun konplexuenei dagokienez, sarera edukiak igotzea kasu, adin nagusieneko internauten kolektiboaren % 40k baino ez du gainditzen. Gazteen artean, aldiz, gaitasun horren jabetza-tasa altuagoa da, % 70. Telefono-deiak edo bideokonferentziak egiteko edo web orriak sortzeko aplikazioen erabilerak ere antzeko egoera aurkezten du.

Bestalde, *e-gaitasunen* bilakaerari dagokionez, internauten % 51k dio azken urtean Interneti lotutako ezagutzetan eta nabigazioan hobetu egin duela.

## ***2.0 webgunea: Sarean parte hartzea***

Erabiltzaile gipuzkoarren % 16k komunitate birtual, sare sozial, web, foro edo blogen batean nahiko sarri parte hartzen du.

Horiek guztiak 2.0 webgunearen adibide praktikoak dira. Web hori sarearen bidez partaidetza, lankidetzeta eta informazioaren trukaketa bultzatzen duen filosofia da. Azken urteetan oso ezagunak egin dira Interneteko erabiltzaileen artean.

Gainerako jarduera eta gaitasun teknologikoekin eta Internetekin lotura dutenekin gertatzen den moduan, hemen ere gazteak dira tresna mota horiek gehien erabiltzen dituztenak. 25 urtetik beherakoen artean sare sozialen txertatze-maila % 25 arte igo da; bien bitartean, batez bestekoa % 16koa da.

Gipuzkoako internautek gehien erabiltzen dituzten 2.0 aplikazioei dagokienez, erabiltzaileen gehiengoak dio [% 84] *YouTube* dela 2.0 guneen artean Internet bidez bideoak trukatzeko gehien erabiltzen duen web plataforma.



Neurri apalagoan bada ere, internauten % 41ek *Facebook* –erabiltzailea bere lagun, senide eta inguruko beste pertsonekin harremanetan jartzen duen sare soziala– hautatzen du gehien erabilitako 2.0 web aplikazioen artean. *Tuenti*, *Facebook*en antzekoa baina jatorri espainiarrekoa, eta nerabeei zuzendutakoa, sare sozialak erabili ohi dituen internauta gipuzkoarren % 38k gustukoenen artean sailkatzen du.

*Myspace*, aurreko bien antzeko sare soziala, baina musika-gaietan espezializatutakoa, 2.0 webguneen erabiltzaileen % 22k erabiltzen du. *Flickr* ere sare sozial garrantzitsua da. Kasu honetan, irudiak eta argazkiak trukatzeko balio du eta web tresna mota horiek erabiltzeko ohitura dutenen aipameneren % 15 jasotzen du.

Aurrez aipatutakoez gain, beste hainbat sare sozial daude, orokorrak nahiz espezializatuak: *LinkedIn*, profil profesionalak trukatzeko; *del.icio.us*, estekak trukatzeko; *hi5*, gai orokorreari buruzkoa; *Twitter*, mikro-blogging tresnaren adibidea eta abar. Gipuzkoako internauten artean gero eta gehiago erabiltzen diren arren, oraindik ere aurrez aipatutakoek baino erabiltzaile kopuru apalagoa dute.

Adin bakoitzeko lehentasunei so eginez, tresnen espezializazio zehatzen kasuak ikus daitezke. Kontaktuen sare sozialen kasuan, *Facebook* eta *Tuenti* azaltzen dira nagusiki. Azken hori herritar gazteenei zuzenduta dago, nerabeei hain zuzen, eta *Facebook*ek, berriz, beste adinetako herritarrek erakartzen ditu.

## d.2 taula \_\_\_\_\_ web 2.0 aplikazioak

(sare sozialak erabiltzen dituen herritarren %)

	Guztira	15 eta 24 urte artean	25 eta 34 urte artean	35 eta gehiago
Facebook	41	33	77	74
Myspace	22	35	17	21
Tuenti	38	70	12	28
Youtube	84	91	85	11
Flickr	15	3	39	29
Beste batzuk	21	25	9	8


Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia Gipuzkoako herritarren Bizimodu Digitala.

Herritarren sare sozialetako erabilera-maiztasunari dagokionez, parte-hartzaileen % 44k dio egunero edo ia egunero erabiltzen duela eta % 27k astero. % 16k maiztasun gutxiagorekin hartzen du parte.



### d.1 grafikoa\_\_ Komunitate birtualetako partaidetza-maiztasuna

[komunitate birtualak erabiltzen dituen herritarren %]



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia Gipuzkoako herritarren Bizimodu Digitala.

Azterketa maiztasun handieneko internautetan oinarrituz gero, komunitate birtual edo fororen batean parte hartzen duen gipuzkoarren % 13k egunean hainbat aldiz parte hartzen duela nabarmentzen da eta, beraz, erabiltzaile intentsiboak dira. Esan beharrekoa da erabiltzaile talde horretako gehienak oso gazteak direla.


Partaidetzara zabalduetako komunitate, foro eta blogak dira sare sozialen beste adibideak. Horietan, gai jakin batek (edo orokorra) parte-hartzaileen arteko lankidetzeta eta iritzi, ideia, esperientzia eta abar komunean jartzea bultzatzen du.

Gehien bisitatutako komunitate birtual eta foroetako gaiei dagokienez, gipuzkoarrek zaletasunekin lotutakoak erabiltzen dituzte gehien, baita eduki profesionalak dituztenak ere (aipuen % 44 eta % 43, hurrenez hurren). Horien atzetik datoz alderdi kulturalak (% 35) eta kirol gaiak (% 27) jorratzen dituztenak. Prestakuntza- eta ikaskuntza-edukiak dituzten foro eta komunitate birtualak ere maiz bisitatzen dituzte (% 22) Gipuzkoako Internet erabiltzaileek.



## d.2 grafikoa\_\_ Komunitate birtualetako gaiak

(komunitate birtualak erabiltzen dituen herritarren %)




Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia Gipuzkoako herritarren Bizimodu Digitala.

## Sare bidezko prestakuntza

Sareak Internet erabiltzeko gaitasunetan prestatzeaz gain, ezagutza eta prestakuntza orokorra eskaintzen dituela ukazina da. Hori horrela, Internet erabiltzen dutenen % 40k azken hiru hilabeteetan prestakuntzarako edo ikasteko erabili duela dio. Adinari erreparatuz gero, erabiltzaile gazteenak dira sarea xede horrekin gehien erabiltzen dutenak.

## d.3 grafikoa\_\_ Internet bidezko prestakuntza

(Internet erabiltzen duten herritarren %)



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia Gipuzkoako herritarren Bizimodu Digitala.



Internet prestakuntzarako erabiltzen dutenek hautatutako on-lineko prestakuntza-ariketen tipologiari dagokionez, ikaskuntza informala (% 67) nabarmentzen da besteen gainerik. Hala eta guztiz ere, prestakuntza-jarduera formalagoei dagokionez, hezkuntza-jarduera ofizial edo arautuarekin lotutako jarduerak dira ohikoagoak (% 39). Horien atzetik datoz lan-aukerekin lotutakoak (% 28) eta ikasketen ondorengo ikastaroak (% 27). On-line hizkuntza-ikastaroak erabiltzaile gutxiagok hautatzen ditu (% 12).



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa  
Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarte Departamentua  
Departamento de Innovación y Sociedad del Conocimiento

i-gipuzkoa2010 

e



Zertarako erabiltzen dugu Internet?





# e.

## Zertarako erabiltzen dugu Internet?

### Gehien erabiltzen diren webguneetako gaiak

Interneten erabilera bultzatzen duten xede eta arrazoiak Sarera sartzen diren erabiltzaile kopurua bezain anitzak eta askotarikoak dira.

Hori horrela, Gipuzkoako internautek erabilitako webgune eta on-line zerbitzu nagusiei dagokienez, komunikabideei dagozkienak nabarmentzen dira besteen artean.

Ohiko maiztasunarekin Sarera sartzen diren Gipuzkoako erabiltzaileen % 26k webgune mota hori gustukoenen artean sailkatzen du.

Neurri apalagoan bada ere, Sarean informazioa bilatzeko bilatzaileak gehien bisitatutako orrialdeen artean daude (% 10), sare sozialekin batera (% 7).

Nahiz eta jarrera horiek orokorrak izan, adin tartearen arabera aldeak nabarmentzen dira. Erabiltzaile gazteenen artean sare sozialak erabiltzeko joera handiagoa nabarmentzen da (% 28). Erabiltzaileek adinean aurrera egiten duten heinean, ordea, komunikabideei, banku elektronikoko zerbitzuei, on-lineko administrazioari eta osasun-gaiak jorratzen dituzten guneei eskaintzen zaie garrantzia.

### e.1 taula \_\_\_\_\_ Gehien bisitatzen diren webguneetako gaiak

[Internet erabiltzen duten herritarren %]

	Guztira	15 eta 24 urte artean	25 eta 34 urte artean	35 eta 44 urte artean	45 eta 54 urte artean	55 eta 64 urte artean	65 urte eta gehiago
Komunikabideak	26	15	27	26	27	43	42
On-line bankua	4	1	3	7	3	3	2
Kultura, artxiboak...	9	14	6	10	6	8	15
Bidaiak	5	0	2	7	8	10	11
Kirolak	7	11	9	5	5	3	2
Eguraldiari buruzko informazioa	4	3	7	3	3	2	2
Bilatzaileak	10	15	11	10	8	8	2
Osasuna	2	0	1	1	5	0	5
Sare sozialak	7	28	5	1	1	0	0
Administrazioa	3	0	3	5	6	2	1
Beste batzuk	23	14	26	23	28	23	16

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia Gipuzkoako herritarren Bizimodu Digitala.



## Gehien erabiltzen diren Gipuzkoako erakundeen webguneetako gaiak

Kasu gehienetan erabiltzaileak ez du bisitatzen duen webguneen jabetza-erakundeen jatorri geografikoaren berri izaten; kasu gehienetan ez du garrantzirik izaten.

Hala eta guztiz ere, maiztasun handienarekin bisitatzen diren orrialde eta web zerbitzu gehienek erabiltzailearen inguruko erakundeetan izan ohi dute jatorria. Bertako informazioa eskuratzeko beharra eta gertuko erakunde, enpresa edo organismoen on-line zerbitzuen erabilera da, zalantzarik gabe, erabiltzaileek gertuko gaiak edo jatorria gertu duten webguneak bisitatzeko arrazoi nagusia.

Internet erabiltzen duten gipuzkoarrei gehien erabilitako jatorri gipuzkoarra duten edo jabetza erakundea Gipuzkoan duten webguneei buruz galdeketa egin ondoren, emaitzen arabera banku erakundeak eta haiek Sarean eskaintzen dituzten banku elektronikoko zerbitzuei dagozkien webguneak dira nagusienak.

Bestalde, neurri apalagoan bada ere, lurraldeko komunikabideak ere gustukoenen artean ageri dira gipuzkoarren artean.

Nabarmendu behar da Interneteko erabiltzaileen % 33k ez duela normalean bisitatzen dituen webguneen jatorri geografikoa ezagutzen. Horrek aurrez aipatutako ideia indartzen du, hau da, kasu gehienetan erabiltzaileak ez duela webguneen jatorri geografikoari buruzko interesik agertzen; izan ere, Interneten sartzeko arrazoiak edukia eta eskaintako zerbitzuak izan ohi dira, eta ez zerbitzuaren jatorria.

### e.2 taula \_\_\_\_\_ Gehien bisitatzen diren jatorri gipuzkoarreko webguneetako gaiak

(Internet erabiltzen duten herritarren %)

	Guztira	15 eta 24 urte artean	25 eta 34 urte artean	35 eta 44 urte artean	45 eta 54 urte artean	55 eta 64 urte artean	65 urte eta gehiago
Komunikabideak	12	15	9	13	9	14	13
On-line bankua	42	16	51	50	45	37	39
Lan-eskaintzak	0	0	0	0	1	0	0
Kultura, artxiboak...	2	4	1	1	1	0	2
Bidaiak	0	0	0	0	1	0	0
Kirolak	2	2	2	1	1	1	2
Eguraldiari buruzko informazioa	3	3	5	3	3	0	4
Administrazioa	7	1	9	8	12	9	4
Beste batzuk	1	0	1	1	1	0	0
Jatorria ez ezagutzea	33	59	23	24	28	39	36

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia Gipuzkoako herritarren Bizimodu Digitala.



## Udal-administrazioa on-line

Internetek zerbitzu eta baliabide publikoak eraginkortasun handiagoarekin kudeatzeko aukera ematen dio administrazioari. Sarearen bidez zerbitzu horiek eskaintzearen xedea pixkanaka herritarren mugikortasuna saihestea da eta, era berean, baita pertsonen erosotasuna, denbora aurreztea eta arreta iraunkorra bultzatzea ere.

Gipuzkoako administrazioak eskaintzen duen zerbitzu digitala, herri nahiz eskualde mailan, azken urteetan nabarmen hobetu da. Gipuzkoako udal guztiek dute webgune ofiziala, norberak edo Gipuzkoako Foru Aldundiak haien eskura jarritako plataformaren bitartez garatutakoa. Atari horiei esker eskaintzen diren zerbitzuak gero eta ugariagoak eta aurreratuagoak dira.

Gipuzkoako udalek web atariak garatzeko eta on-line zerbitzu zabala eskaintzeko egindako ahalegina izugarria den arren, web horien ezagutza oraindik ere mugatua da Gipuzkoako herritarren artean. Hain zuzen ere, Internet ohikotasunez erabiltzen dutenen % 41ek bere udalaren webgunea ez duela ezagutzen onartzen du; hori da, zalantzarik gabe, haien erabilera gehien oztopatzen duen arrazoia.

Beren udalaren web ataria ezagutzen duten erabiltzaileen artean (% 59), erabilera-mailak % 93 gainditzen du. Horrek webgune horiek eskaintzen dituzten zerbitzuen erabilgarritasuna handia dela adierazten du.

Erabileraren maiztasunari dagokionez, galdetutako erabiltzaile gehienek noizean behin konektatzen direla diote (% 79), kontsulta zehatza egiteko edo une jakin batean informazio espezifiko bilatzeko. Erabiltzaileen % 15 hilero edo ia hilero konektatzen da eta % 6, berriz, astero edo ia astero.


Udalek eskainitako web atarietako zerbitzuak aldatu egiten dira herri batetik bestera, udalak erabilitako web plataformaren garapen-mailaren arabera. Gipuzkoako hainbat udalek herriari buruzko informazioa besterik ez dute eskaintzen. Beste batzuek, ordea, proiektu konplexu eta aurreratuagoak eskaintzen dituzte, produktu eta on-line zerbitzu zabalarekin.



Laburbilduz, Gipuzkoako Internet erabiltzaileek beren udaletako webguneetara sartzean gehien erabilitako on-line zerbitzuak hauek dira: herriari buruzko informazio orokorra (% 44) eta inprimakien on-line eskaera (% 35). Horien atzetik datoz udalari eta udalbatzari buruzko informazioa (% 25), aldez aurretik ordua eskatzeko sistemak (% 24), ordainagiri eta isunen ordainketa (% 24) eta ikastaro eta jardunaldietarako izen-ematea (% 23). Proporzio txikiagoan aipatzen dira kexak eta iradokizunak aurkezteko sistemak (% 8).

### e.1 grafikoa\_\_ Udal administrazioa on-line: gehien eskatzen diren zerbitzuak

(udal e-administrazioa erabiltzen duten herritarren %)



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia Gipuzkoako herritarren Bizimodu Digitala.

Erabilitako zerbitzu jakinak alde batera utzita, Gipuzkoako internautek beren herriko udalen webguneei buruz duten iritzi orokorra oso positiboa da.

Zehatzago esanda, Gipuzkoako udaletako webguneen erabiltzaileen % 81ek "Oso erabilgarri" edo "Nahikoa erabilgarri" gisa definitzen du bere herriko udalaren web ataria. Beren kabuz lan egiten duten erabiltzaileen kolektiboa da, hain zuzen ere, udalek eskaintzen duten web zerbitzuarekin adostasun handiena agertzen duena.



## e.2 grafikoa\_\_ Udal e-administrazioiko edukien eta zerbitzuen balioespena

[udal e-administrazioa erabiltzen duten herritarren %]



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia Gipuzkoako herritarren Bizimodu Digitala.



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa  
Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarte Departamentua  
Departamento de Innovación y Sociedad del Conocimiento

i-gipuzkoa2010 



Zenbat eragiten du Internetek gure  
bizitzan?





f.

## Zenbat eragiten du Internet gure bizitzan?

### Teknologia berriekiko jarrera pertsonala


Egun, bistakoa da Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiek, eta Internetek, bereziki, pertsonen eguneroko bizitzan duten garrantzia, bai alor profesionalan, bai pertsonalean edota harremanen arloan.

Gipuzkoan, bost internautatik batek dio Internet garrantzitsua dela bere eguneroko bizimodurako, eta gainerako % 26k dio tresna hori funtsezkoa dela beretzat. Gipuzkoako internauten % 41ren ustez, Internet tresna erabilgarria da eguneroko bizitzarako.

Hala eta guztiz ere, erabiltzaile talde batek ez du hain jarrera gogotsua erakusten Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiei dagokienez, eta beren ustez, tresna horiek beren eguneroko bizitzan duten eragina eskasa (% 12) edo baliorik gabea (% 1) da.

#### f.1 grafikoa \_\_ Teknologia berriekiko jarrera pertsonala

(Internet erabiltzen duten herritarren %)



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia Gipuzkoako herritarren Bizimodu Digitala.

Erabiltzaile gazteenek (15 eta 34 urte artekoak), tresna horien erabileran ohituago egonik, jarrera positiboagoa agertu dute tresna horiek beren bizitzan duten eraginari dagokionez. Hala eta guztiz ere, gainerakoek, IKTei dagokienez, gero eta interes handiagoa erakusten dute.



### f.1 taula \_\_\_\_\_ Internetekiko jarrera pertsonala, adin-taldeen arabera

(Internet erabiltzen duten herritarren %)

	Guztira	15 eta 24 urte artean	25 eta 34 urte artean	35 eta 44 urte artean	45 eta 54 urte artean	55 eta gehiago
Funtsezkoa da nire bizimodurako	26	33	27	25	24	14
Garrantzitsua da nire bizimodurako	20	13	25	24	16	19
Erabilgarriak direla iruditzen zait eta erabiltzen ditut	41	41	36	38	46	54
Ez zaizkit asko interesatzen	12	11	12	11	13	9
Ez zaizkit batere interesatzen	1	1	0	1	1	3

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia Gipuzkoako herritarren Bizimodu Digitala.

Lan-egoerari dagokionez, aldeak ez dira nabarmenak; hala eta guztiz ere, etxeko lanak egitez arduratzen diren herritarrek jarrera eszeptikoagoa erakusten dutela antzeman dugu.

### f.2 taula \_\_\_\_\_ Internetekiko jarrera pertsonala, lan-egoeraren arabera

(Internet erabiltzen duten herritarren %)

	Lanean ari den soldatapekoa	Lanean ari den autonomoa	Ikaslea	Langabezian dagoena	Erretiroduna	Etxeko lanak egiten dituena
Funtsezkoa da nire bizimodurako	23	35	36	30	14	7
Garrantzitsua da nire bizimodurako	22	22	13	33	20	7
Erabilgarriak direla iruditzen zait eta erabiltzen ditut	41	32	39	30	59	63
Ez zaizkit asko interesatzen	13	11	10	7	5	17
Ez zaizkit batere interesatzen	1	0	1	0	2	5

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia Gipuzkoako herritarren Bizimodu Digitala.

### Internetek eguneroko jardueretan duen eragina

Internet eta teknologia berriekiko jarreraz gain, interesgarria da horiek eguneroko jardueretan duten eraginaren berri izatea.


Horrela, Gipuzkoako hiru internautatik baten arabera, IKTek nabarmen eragiten dute bere bizimoduan eta oso zaila eta zenbaitentzat ezinezkoa izango zatekeen inolako zailtasunik gabe Internet gabe bizitzea. Gainera, % 57ren esanetan, Internetik gabe, bere bizitzako zenbait alor aldatu beharko litzuke.

Hamar internautatik bakarrak adierazi du Internet gabe berdin-berdin biziko litzatekeela.



## f.2 grafikoa \_\_ Internetek eguneroko jardueretan duen eragina

(Internet erabiltzen duten herritarren %)



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia Gipuzkoako herritarren Bizimodu Digitala.

Eguneroko bizitzan Internetek duen eraginari buruzko balorazioak herritar gazteen artean (15 eta 34 urte artekoak) lortzen du mailarik altuena. Hala ere, adinez nagusiagoak diren taldeek badakite Internetek zer nolako eragina duen beren bizitzan, eta gutxi bizi ahal izango lukete berdin-berdin tresna hori gabe.

## f.3 taula \_\_ Eguneroko jardueretan Internetek duen eragina, adin-taldean arabera

(Internet erabiltzen duten herritarren %)

	15 eta 24 urte artean	25 eta 34 urte artean	35 eta 44 urte artean	45 eta 54 urte artean	55-64 urte	65 urte eta gehiago
Eragin handia/oso handia	39	36	34	30	26	13
Eragin ertaina/txikia	51	54	56	60	67	82
eraginik ez	10	10	10	10	7	5

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia Gipuzkoako herritarren Bizimodu Digitala.

Lan-egoerari dagokionez, ikasleen, langile autonomoen eta langabezia dauzen pertsonen artean eragina handiagoa da.



#### f.4 taula \_\_\_\_\_ Eguneroko jardueretan Internetek duen eragina, lan-egoeraren arabera

(Internet erabiltzen duten herritarren %)

	Lanean ari den soldatapekoa	Lanean ari den autonomia	Ikaslea	Langabezi an dagoena	Erretiroduna	Etxeko lanak egiten dituenak
Eragin handia/oso handia	31	44	45	41	13	8
Eragin ertaina/txikia	59	47	46	55	86	73
la eraginik ez	10	9	9	4	1	19

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia Gipuzkoako herritarren Bizimodu Digitala.

#### Web 2.0-ren eragina

Web 2.0 filosofia izenekoaren hedapenak, Sarearen bidez parte-hartzea, lankidetzak eta informazioaren trukaketa sustatzen duenak, eragin nabarmena izan du internauten artean, eta batez ere, harremanak izateko moduan.

Gipuzkoako internauten % 65ek adierazi du 2.0 aplikazioei esker lagunekin harreman jarraituagoa mantendu ahal izan dutela. Gainera, % 45ek zaletasunak partekatzen dituzten beste pertsona batzuk ezagutu ditu eta % 31k adierazi du Interneten bidez lagun sarea handiagotu egin duela.


Bestalde, nabarmendu beharrekoa da 2.0 aplikazioei, hau da, informazioaren trukaketa bizkorra eta lankidetzak sustatzen dutenei esker, ezagutza orokorraren maila [% 44], zaletasunak edo hobbyak [% 34] edo alor profesionala [% 34] hobetu dutela dioten Gipuzkoako internauten ehunekoak.

Azkenik, Gipuzkoako internauten ia % 28k dio 2.0 tresnei esker gizartean modu aktiboagoan parte hartzen duela.



### f.3 grafikoa \_\_ Web 2.0\* aplikazioen eragina \*

(Internet erabiltzen duten herritarren %)



\* Erantzun anitza

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia Gipuzkoako herritarren Bizimodu Digitala.

2.0 webguneen eragina gazteen artean gehiago ikus daiteke, horiek baitira tresna mota horien erabiltzaile nagusiak (lautik bat, 25 urte baino gutxiagoko gipuzkoarren artean).

Hori dela eta, lagunekin, familiakoekin eta ingurunekeo beste pertsona batzuekin harremanetan modu jarraituagoan egoteko edo haien zaletasunez informazioa jasotzeko 2.0 tresnak (sare sozialak edo komunitate birtualak, esaterako) erabiltzen dituzten gazteen ehuneko altua nabarmentzen da.

35 urtetik aurrera, tresna mota horien eragina nabarmen txikiagoa da.

### f.5 taula \_\_\_\_\_ Web 2.0 aplikazioen eragina, adin-taldean arabera \*

(Internet erabiltzen duten herritarren %)

	Guztira	15 eta 24 urte artean	25 eta 34 urte artean	35 eta 44 urte artean	45 eta 54 urte artean	55 urte eta gehiago koak
Jende gehiago ezagutu, lagunduta sentitu	31	42	21	35	11	14
Lagunekin harreman estuagoa	65	85	72	42	27	14
Zaletasun/hobbyi buruzko informazioa lortu	45	48	45	45	40	25
Herritar aktiboagoa eta parte-hartzaileagoa sentitu	28	28	36	18	17	27
Zaletasun/hobbyei buruzko informazioa lortu	62	57	60	63	78	74
Laneko informazioa lortu	34	16	48	44	55	27
Ezagutzak ugaritu, trebakuntza-maila hobetu	44	38	48	55	44	14

\* Erantzun anitza

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia Gipuzkoako herritarren Bizimodu Digitala.



Azkenik, herritarren lan-egoerari dagokionez, 2.0 aplikazioek eragin handiagoa dute ikasleen eta langabezia dauden herritarren artean.

**f.6 taula** \_\_\_\_\_ **Web 2.0 aplikazioen eragina, lan-egoeraren arabera\***

(Internet erabiltzen duten herritarren %)

	Guztira	Sodata pekoa	Autonomia	Ikaslea	Langabezia dagoena	Erretiroa
Jende gehiago ezagutu, lagunduta sentitu	31	24	40	32	60	10
Lagunekin harreman estuagoa	65	57	46	86	100	10
Zaletasun/hobby bereko jendea ezagutu	45	43	41	46	60	42
Herritar aktiboagoa eta parte-hartzaileagoa sentitu	28	27	27	28	43	25
Zaletasunei/hobbyei buruzko informazioa lortu	62	59	73	49	100	86
Laneko informazioa lortu	34	45	59	8	58	0
Ezagutzak ugartu, trebakuntza-maila hobetu	44	41	61	41	79	10

\* Erantzun anitza

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia Gipuzkoako herritarren Bizimodu Digitala.



**Fitxa Teknikoa: Gipuzkoako herritarren Bizimodu Digitala 2009.**

**Proiektuaren zuzendaritza:**

Gipuzkoako Foru Aldundia  
Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Departamentua  
Informazio Gizarterako Sistemien Zuzendaritza Nagusia

**Idazketa-taldea:**

Ikei Research & Consultancy

**Landa-lana:**

Araldi

Azterketa egiteko, 2009ko urtarrilean, Gipuzkoako 1.568 etxebizitzetara egindako inkestaren erantzunak hartu dira aintzat.

**Informazio gehiago:**

<http://www.i-gipuzkoa.net/index.php?idioma=eu>